



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

LAN MUNDUA ETA SEXISMOA HGL-n

GRADU AMAIERARAKO LANA

IKASLEA: Ramirez Morato, Iker

IRAKASLE TUTOREA: Etxaniz Erle, Xabier

Lehen Hezkuntzako Gradua – Gasteiz

2019-2020 ikasturtea

Laburpena:

Hurrengo lana Gasteizko Hezkuntza eta Kirol fakultatean egindako gradu-amaierako lana da. Lan honetan, sexismoari buruzko ikerketa bat aurrera eraman da, eta, zehatzago, Haur eta gazte literaturan generoak lan munduan duen paper garrantzitsua aztertu da. Horretarako, gela bateko 50 liburu aztertu dira, zehazki Lehen Hezkuntzako bigarren mailakoak, hau da, 6-8 urte bitarteko liburuak, kasu honetan euskal liburuak izan dira gehienbat euskarazko liburuak zituztelako ikastetxe honetan. Horrela, lagin txiki horretan oinarrituta helburu nagusia Haur eta gazte literaturan mundu laboralaren inguruan emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna aztertzea da, genero ikuspegitik sexismoa aztertzeke.

Aipatutako liburu hauek eta emakumeak eta gizonak Haur eta Gazte Literaturan lan munduarekiko betetzen duten eginkizuna aztertu ondoren, gaur egun gizartean sexismoari eta genero arabera bakoitzak lan arloan duen paperari buruz ematen diren datu objektiboetatik abiatuta, kritika txiki bat egiten zaio haur eta gazte literaturari, batez ere liburu horiek eta literaturak umeen etorkizunerako balio handia dutelako eta arlo pedagogiko zein hezitzaileko eta genero-identitatearen eraikuntzan eragin handia duen kultura bat delako

Beraz, berdintasuna bultzatzeko beharrezkoa da guztien parte hartzea eta haurren aldeko apustua egitea etorkizun berritzaile bat sortzeko.

Resumen:

El siguiente trabajo es un trabajo de fin de grado llevado a cabo en la facultad de educación y deporte. Dicho trabajo consiste en llevar a cabo una investigación acerca del sexismo y más concretamente del mundo laboral en la literatura infantil y juvenil. Para ello, se han analizado 50 libros de una aula, más concretamente de segundo curso de primaria, es decir, libros entre 6-8 años, los cuales todos estaban escritos en euskera dado que en el colegio la gran mayoría eran en este idioma. De esta forma el objetivo principal basándose en esta pequeña cantidad es estudiar la diferencia entre mujeres y hombres en el mundo del trabajo en la literatura infantil y juvenil para estudiar el sexismo desde una perspectiva de género.

Una vez analizados dichos libros y el papel que ocupa la mujer y el hombre en el mundo laboral en la literatura infantil y juvenil, partiendo de datos objetivos que hoy en día se dan en la sociedad acerca del sexismo y el papel que tiene cada uno en el ámbito laboral, se lleva a cabo una pequeña crítica a la literatura infantil y juvenil que encontramos en las aulas partiendo principalmente de la idea que estos libros y la literatura tiene un gran impacto en su futuro y que les sirve tanto pedagógicamente como para su educación y porque es una cultura que tiene una gran influencia en la construcción de la identidad de género

Por tanto, para promover la igualdad es necesaria la participación de todos y apostar por la infancia para crear un futuro innovador.

Abstract:

The next work is the end of degree work done at the faculty of education and sport of Vitoria-Gasteiz. In this study, research on sexism has been carried out and, more specifically, the role of gender in the world of work in children and youth literature has been analyzed. For this purpose, 50 books of a classroom, specifically of the second year of Primary Education, that is, books between 6 and 8 years, all of them in basque. Thus, from this small sample, the main objective is to analyze the difference between women and men in the labor world in children's and youth literature, in order to analyze sexism from the gender perspective.

After analyzing the role played by women and men in the Children's and Youth Literature with respect to the world of work, based on the objective data offered in today's society on sexism and the role of each one in the world of work of genres, a small critique is made of children's and youth literature, especially for the great value of books and literature for the future of children and for being a culture that has a great influence on children'

Therefore, to promote equality, the participation of all and the commitment to children is necessary to create an innovative future.

AURKIBIDEA

1.SARRERA.....	5
2.MARKO TEORIKOA.....	6
2.1 Haur eta Gazte Literatura.....	6
2.2 HGLren balioa eta garrantzia.....	10
2.3 Haur Literatura eta Generoa.....	11
3. METODOA.....	19
3.1 Metodologia.....	19
3.2 Helburuak.....	20
3.3 Hipotesiak.....	21
3.4 Corpus-a.....	23
3.5 Tresnak.....	24
4.EMAITZAK.....	26
5.ONDORIOAK.....	29
5.1 Ikerketaren ondorioak.....	29
5.2 Ondorio orokorrak.....	34
5.3 Aurrera begira.....	36
6.BIBLIOGRAFIA.....	38
7.ERANSKINAK.....	41
I. Liburuak aztertzeko erabilitako fitxa.....	41
II. Liburuen zerrenda.....	42

1.SARRERA:

Sexismoa batzuetan begi-bistakoa da, baina sarri, liburuen barnean sexismoa ezkutuan agertzen da eta oharkabean pasatzen da irakurlearen begietatik. Horregatik, estereotipo tradizionalak indartuta geratzen dira. Nolakoa izango da euskal umeez liburuetan ikusten eta irakurtzen duten emakumea? Eta gizona?

Gizartean baliabide gisa sortu den haur eta gazteei zuzendutako literatura, inguruan eta errotuta daukagun sexismoaz kutsatua eta zipriztinduta dago (Lluch, 2003). Gainera, mezu estereotipatuak helarazten dituelakoan nago. Izan ere, estereotipoek sexismoa bultzatzen dute (Mosquera, 2006) eta sexismoa dagoen bitartean ez da berdintasunik egongo, bereziki, emakumeen funtzioak, rolak, espazioak eta izaera mugatzen dituelako (Fernandez, 2017).

Askotan, nahiz eta berdintasuna bilatzen dituzten legeak egiten diren, eskoletan literaturaren bitartez estereotipo sexistak transmititzen jarraitzen dira eta emakumearen irudia diskriminatzen da. Hala eta guztiz ere, gradu amaierako lan honetan gizonaren eta emakumearen papera lan munduan haur eta gazte literaturan aztertuko dugu eta egin diren hainbat ikerketa oinarri hartuta hainbat gauza aztertuko ditugu, gaur egungo gizarteko datuekin konparatuz eta ondorio propioak ateraz.

Lan honetan emakumeek eta gizonen liburuetan egiten duten lana aztertuko da, hau da, gizarteratuta dauden genero estereotipoak ea betetzen diren (gizonek lan egin behar dutela eta emakumeak etxea zaintzen geratu, adibidez) eta urteetan zehar estereotipo hauek izan duten eboluzioa aztertuko da. Emakumeen funtzio nagusia familia zen; haien konpromisoa ez zegoen lan-munduarekin, gizonen konpromisoa bai, ordea, eta errazago lortu dituzte botere eta ospe postuak. Emakumeok etxeko lanaz eta haurren zaintzaz arduratzen ziren; lan horiek guztiak ez dira oso agerikoak, baina oso garrantzitsuak dira gizartearen bizitzarako, nahiz eta ez onartu mundu publikoan egindakoak direla.

Pentsamendu hau oinarri moduan hartuz, haur literaturak gai honi buruz transmititzen dituen balioez arituko gara, literaturaren garrantzia azalduz eta nola eragiten dion ume bati, hau da, literaturak umeengan duen balioz eta garrantziaz eta oraindik aldaketa asko egin behar direla plazaratuko dugu. Horretarako, lehendabizi, literatura zer den argi utziko da, hainbat autorek ematen dituen esanahiak kontuan

hartuz eta hauen inguruko hausnarketa eginez. Eta amaitzeko autore ezberdinen ikerketen bitartez gaur egun haur eta gazte literaturak generoaren inguruan duen egoeraz arituko gara, hau da, haur literaturan dagoen sexismoa datuen bitartez azalaraziko dugu eta sexismo honek umeengan dituen kalte nabarmenak aipatuko ditugu.

2.MARKO TEORIKOA

2.1 HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Begoña Ibarrolak “Los cuentos orientan y guían al lector en la gran aventura del vivir cotidiano” (2019) artikuluan adierazten du ipuinek onura dakartela, bai autoezagutzaren arloan, bai haurren kontzientzia emozionalean. Literatura hainbat gauzetarako tresna baliagarria bihurtu daiteke, adibidez, giza adimena askatzeko tresna, sormenezko estimulazio-iturri amaigabea, egunerokotasuna hobetzen duen esperientzia-altxorra, baina, batez ere, ispilua: nola garen erakusten digun ispilua: ipuin bat irakurtzean, ia beti geure buruarekin bat eginda egoten garelako. Baina, bestalde, ipuinek liskarrekin egiten diote aurre irakurleari, eta ekintzen emaitzak ikusten laguntzen die. Ekintza orok du amaiera bat, eta, askotan, kontrolik gabeko sentimendu-adierazpen batek ondorio oso kaltegarriak ditu, eta inguruan ditugun subjektuak zauritzen ditu. Sentitzen dugunaren adierazpen zuzenak hobetu egiten du elkarbizitza, eta subjektu atseginago bihurtzen gaitu; horregatik, erregulazio emozionala ipuinen bidez sakontzen den beste gaitasun bat da.

Haur eta gazte literaturak eredu itxiak, bukatuak eta ukiezinak aurkeztu ditu ia beti, klaseetan eta sexuetan gizarte-banaketa iraunarazten duen gizarte-eredua sendotu eta indartu nahian. Haur eta gazte literaturaren bitartez aurkeztutako eredu funtzioa kideen sexu-bereizketa iraunarazteko modu gisa ezarritako ordenari obeditzean datza. Ikasketa batzuek herri-ipuin askoren jatorria aurkitzen dute, gizarte-hastapeneko haur zaharretan. Gaur egun, haur eta gazte literaturak jatorri hori ez badu ere, edozein lanek munduari buruzko ikuspegi jakin bat ematen du, eta, hartara, gizarte-ezagutzarako proposamen bihurtzen da. Hala, gizarte-harreman jakin batzuen irudiak eskaintzen ditu (boterea, mendekotasuna, gizarte-rolak, erakundeak, gatazkak konpontzeko arauak...).

Haur eta gazte literaturaren definizioa (HGL) ikerketa-ildo bat da berez. Berria izan arren, diziplinak, hausnarketa ugari sortu ditu, bai esparru akademikotik bai kulturatik orokorra... Baina, zer zailtasun ditu fenomeno berri samar horri aurre egiteak?

Garrantzitsua da HLren definizioari aurre egitean agertzen diren arazoak taldekatzea eta irtenbide hau ematen saiatzea: sistematizatzen/aztertzen laguntzea eta literatura horren ezaugarri bereziak sakontzen laguntzea.

HGLren kontzeptu iheskorari buruz hausnartzea haurtzaroari, literaturari eta haren mugei buruz, hezkuntzak sorreran eta zabalkundean duen eginkizunari buruz gogoeta egitea ere bada. Implizituki ere eskatzen du geure buruari galdetzea zertarako behar dugun kontzeptu hori eta eman nahi diogun erabilerari buruz.

Gure kasuan, kontzeptu hori Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren arlotik garatzen dugu, eta, beraz, haren garapena estu lotuta dago harekin zerikusia duten arlo eta diziplineekin. Bistan denez, hizkuntza eta literatura, baina baita pedagogia (eta, jakina, didaktika), soziologia edo psikologia ere.

80ko hamarkadan hainbat definizio sortu ziren Haur Literaturaren inguruan. Ikus ditzagun, adibidez, Valriuk aipatutako definizioak (1994:14-16).

- Haurrentzako obra estetiko da (Marisa Bortolussi).
- “Bertan biltzen dira hitzaren oinarri diren adierazpen eta jarduera guztiak, haurrari interesatzen zaizkion helburu artistiko edo ludikoarekin” (Juan Cervera).
- Komunikazio-ekintza bat da, izaera estetikokoa, haur hartzaille baten eta igorle heldu baten artekoa. Helburua da lehenengoa sentsibilizatzea eta, bitarteko gisa, irakurlearen eskakizunei erantzutea (Gabriela Perriconi).

Hiru autore horiek irakurle eredu kontzeptua gainditzen dute, irakurle eredu berera zuzenean joateko, haren erantzunari buruz galdetuz. HGL izan dadin, hartzailleari gustatu behar zaio. Eleberri beltz batek eleberri beltzaren irakurleei ere gustatu beharko litzaiekeen moduan, bere ezaugarrietatik edo autorearen asmoetatik at.

Ondorioz, HGL helburudun literatura bat da (Perriconi, Valriu i Llinàsen aipatua, 1994), funtzioak dituen (Colomer, 1999) (De Amo, 2003), ez da beste edozein literatura mota bat. Sánchez Corralen esanetan (1995), diskurtso “moral iraunkorra” da.

Lehen aipatu ditugun definizioetan, batek bakarrik egiten dio erreferentzia esplizituki HGLren hezkuntza-osagaiari, baina, egia esan, alderdi hori “modu iraunkorrean” agertzen da, Sánchez Corralek zioen bezala, betiere gaiari buruz hitz

egiten bada. Zenbait autorek HGLren sorrera XVIII. mendeko eredu didaktikotik urruntzean eta/edo entretenimenduak hezkuntzan duen nagusitasunean kokatzen dute (Borda Crespo, 2002; Rudd, 2005; Sánchez Corral, 1995).

Colomerrek (1999) aipatzen du haurrei eta gazteei zuzendutako liburuak literatura direla eta hiru funtzio nagusi bete behar dituztela:

- Gizarte zehatz batek partekatzen duen irudimenezko egoerei sarrera eskaintze, hau da, ezagutzeak ematea.
- Hizkuntzaren domeinua garatzea literatura diskurtsoaren narrazioko, dramatizazioko eta poesiako formen bitartez.
- Munduaren errepresentazioa erakustea eta gainera, etorkizuneko belaunaldien sozializazioan lagunduko duen tresna izatea.

Mendozak (1999: 12) honela dio: Haur eta Gazte Literaturako lanek balioa eta garrantzia dute berez, kategoria estetiko entitate semiotikoak dira, eta haien funtzionalitatea ez da nahitaez “literatura handia” eskuratzeko bigarren mailako bidea izatea; aitzitik, nabarmendu eta zehaztu behar da norbanakoa irakurle gisa prestatzeko balio dutela, bere balio osoan, hain zuzen ere, lan horietan literaturaren ezaugarri semiotiko handiak daudelako.

HGLk bere hezkuntza eremuarekin duen harremana bi ikuspuntutatik har daiteke. Batetik, haurren hezkuntza orokorra literaturaren bidez, eta, bestetik, literatura-hezkuntza.

Hezkuntza eremu orokor horretara hurbiltzeko, Bassa i Martinen lana erabil dezakegu (1994), zeinak haurrentzako liburuko hezkuntza-mezua hamar itemetan laburbiltzen baitu: familia-mundua, haurren eta gizon/emakumearen ikuspegia, harreman pertsonalak, sentimenduak eta balio etiko-sozialak, eskola-instituzioaren mundua, irudimenezko mundua eta mitologiko-erlijiosoa, lan-mundua, pentsamendu ekologikoa, kultura-mundua, herrialdearen kontzeptua. Hala, autore horren aburuz, umeentzako Haur eta Gazte Literaturaren liburuak transmititzen duen hezkuntza orokorra izango litzateke. Gizateriaren jakinduriak izan beharko balu bezala. Eduki horiek garaietara eta kulturara nola egokitzen diren ere aipatzen du Bassak. Gauzak

horrela, esan dezakegu hezkuntza-edukiak ez duela izaera hezitzaile hutsa, baizik eta ekoizpen-inguruabarren araberakoa dela, eta haiekin aldatuko dela.

Jakin bezala, literatura bai gizonei eta emakumeen estereotipatzen duten arau, baloreak eta osasunaz transmititzen duen bide bat da. Dударik gabe, haur literaturak hainbat eta hainbat eratan lagundu izan du gizarte-eredu sexista eta ikaragarria izan, ez bakarrik klase ezberdinetan baizik eta sexu ezberdinetan ere (Cromer eta Turín, 1998).

Haur eta Gazte Literaturari kritika txikia egiteko, lehendik zuten ikuskera tradizionalarekin haustearekin hasiko naiz. Haurrentzako literaturan emakumearen irudia nola agertzen zen aztertuz, baina, gainera, nola lantzen zen sexu-aniztasunaren gaia. Nahikoa da gizarte-estereotipoetan eta emakumezkoaren inguruko gizarte-irudimenean sartzen hasteko. Amaren estereotipoa, moldatutako emakumearena, goizean emakume baten etxeko irudiarekin kontrajartzen dena, orraztu eta makillatu aurretik, crema guztiak erabiliz.

Psikologia arlotik diseinatutako esperimentu klasiko asko eramán dira aurrera estereotipoen artean, eta erlazio zuzena ezarri dute haurren sinesteen artean, generoko estereotipo eta rol tradizionaletan, eta portaera horiek deskribatzen eta islatzen zituzten istorio edo fikzioen eraginpean egotea, adibidez irakurtzen duten liburuetan ikusten duten irudiez baliatuz rola ezartzea edo estereotipoak sortzea (Knell eta Winer, 1979).

Haur eta gazte literatura-irudikapenak bi genero daudela onartzen du liburuetan ikusten den bezala, alde batetik emakumea eta bestetik gizona, baina izugarri lehenesten du genero bakar bat. Aintzatespen txikiena duen sexua baztertuta geldituko da ezinbestean, eta lehenaren zerbitzura.

Nahiz eta emakumeak literaturaren munduan tradizioz egon, bere goraldi profesionala ez da gizona bezala hazten. 2012an, ordea, Espainiako idazle guztien % 46,6 emakumezkoak ziren (Conecta, 2013), Laura Freixas-ek (2009) erakusten duen bezala, erabat barregarria da haren gizarte-onarpena, jasotako literatura-sarien kopuruarengatik, kanonetan agertzeagatik edo prentsan kritika literario gisa aritzen diren emakumeen tasagatik (oso murriztua)

2.2. HGLren BALIOA ETA GARRANTZIA:

Ikerketa hau egitearen arrazoietakoa bat da genero-estereotipoek nola eragiten dioten haur eta gazte liburuei eta umeek liburu hauek ardatz moduan hartuz genero estereotipo hauek barneratzen dute haien bizitza guztirako, gaur egungo gizartea sortuz. Haur eta Gazte Literatura (HGL) nerabeen genero-identitatearen eraikuntzan eragin handia duen kultura bat da. Alde nabarmenak daude mutilen pentsamenduen eta nesken pentsamenduen artean, eta nerabeek haien bizitzan zehar balioak transmititzeko hainbat ibilgailuren bidez (besteak beste, literaturaren bidez) ikasi dituzten genero-estereotipoen artean ere alde nabarmenak daude ere (Aparicio, I. 2016)

Haur eta gazte literatura haurtzarotik haurrek izaten duten lehen kultur gailuetako bat da. “lo-kantak” sehaskaren inguruan kantatuz eta ohearen azpian ipuinak irakurriz, haurrek beren heroi gogokoenekin abenturak bizitzeko ametsa dute, mundu fantastikoetan murgiltzen dira, beren buruan agertokiak birsortzen dituzte eta plazer izugarria sentitzen dute istorio bera behin eta berriz entzun edo irakurtzean. Literaturak lagundu egiten die haien mundua eraikitzen, elkar hobeto ezagutzen. Une honetan, eta nerabezeroan intentsitate handiagoz, mutilak eta neskek haien nortasuna modelatzen ari dira, eta, beraz, literaturaren eta beste arte eta kultura adierazpen batzuen eragina funtsezkoa da. (Aparicio, I. 2016). Gainera, mutilen eta nesken eguneroko bizitzan genero-estereotipoak agertzea (Haur liburuetan, literatura lanetan, etab.) genero-identitatearen eraikuntza baldintzatzen du, eta sineste eta jarrera sexistak agertzea bultzatzen dezake; horrek gizon eta emakume tolerantak, errespetuzkoak, aske eta zoriontsuak gisa heldzea eta haztea eragotz dezake (Díaz-Aguado, 2003, 2009).

Oro har, nerabezeroan zehar, gazteak haien buruaren zain egoten dira, bai gorputzari dagokionez, bai psikikoki; izan ere, garai horretan egoera berriei aurre egin behar izaten diete, askotan arazotsuak, eta hori guztia beldur, segurtasun eza, grina eta desio handiekin batera. Hain zuzen ere, aurreko egoera horrek, Gómez Yebrak nabarmentzen duenez (2016), pertsonaiek beren sentimenduekin, gatazka psikologikoekin, nortasunaren bilakaerarekin eta munduaren ikuskerarekin identifika daitezkeen lanak irakurtzeko aukera ematen die. Aguilaren ekarpenekin bat etorriz (2007), beharrezkoa da HGLk eskaintzen duen genero kontzeptua ikusaraztea. Azken batean, HGLk betetzen duen edo bete dezakeen funtzio bikoitz hori nabarmentzen da, plazer-elementu gisa eta gizarte-desberdintasunak eraldatzen dituen elementu gisa.

Esan dezakegu HGLk balio kultural eta ideologikoak transmititzeko kanal garrantzitsua dela, eta “belaunaldi berrien sozializazio-funtzioa izan du beti” (Colomer, 2010:49). HGLren sorrerak, beraz, helburu hezitzailea izan zuen. “Alde horretatik, ez dago haurren literatura baino dokumentu hoberik gizarteak bere burua nola ikusi nahi duen jakiteko” (Colomer, 2010:49). HGL kultura transmititzeko lehenetariko bide bat da. Haurrak harremanetan jartzen dira, eta, haien gaitasun kritikoa nahikoa ez denez liburuetan agertzen dena zalantzan jartzeko edo dezados egoteko, haiengan duen eragina oso zirrargarria izan daiteke (Caamaño, 2007).

Machadok irakurketak eta kulturak hazkunderako eta emantzipazio pertsonalean eragile gisa duten garrantzia defendatu du bizitza osoan, gizarte aldaketa dakarrena ikuspegi horrekin, mundu libreago, errespetuzkoago eta bidezkoago batera bideratuz, herritar guztientzako aukera berdintasuna bermatuz. Haren ipuin eta nobelek emakumezko pertsonaia arau-hausleak aurkezten dituzte, eredu tradizionalekin apurtu egiten dutenak. Machadoren narrazioa, haurrentzako kontakizunez elikatzen da, istorio errazak dira, haurtzaroaren kontakizunez baliatzen diren ipuinak eta irtenbideak eskaintzen dituzte eredu eraikiekin berdintasuna eta desberdintasunaren onarpena oinarri hartuta. Emakumezko pertsonaia ugariren narrazioak erakusten ditu familia-istorioetako protagonistak izanik; batzuetan, eredu tradizionalak errepikatzen dituzte, eta, beste batzuetan, beren pertsonaiak emakume liberatuak, independenteak eta abenturazaleak dira, arlo laboralean ere gixonak egiten dituzten lan berdinak edo indartsuagoak eginez eta gaur egungo gizartea alde batera utziz, kulturak ezarritako genero-estereotipoarekin hausten dute izan ere. (Luengo, 2013b: 198-199).

2.3. HAUR LITERATURA ETA GENEROA

Hainbat ikerketatan egiaztatu ahal izan denez, estereotipoek gizarte-sinesmenen eremu zabal bat estaltzen dute, eta lehen mailako funtzioa dute nortasun sozialaren inguruan. Estereotipo kontzeptua eztabaidagarriagoenatarikoa da eta berrikusten ari dira, aurreiritziekin eta diskriminazioarekin duten lotura (Gabaldon 1999). Estereotipotzat hartzen ditugu, Mackieren proposamena onartuz (1973), gizarte-talde baten ezaugarri diren atributuei buruzko herri-sinesteak (adibidez, alemanak, ijitoak, emakumeak), eta horiei buruzko oinarritzko akordioa dago. Lan honetan, aldiz, genero

estereotipoen inguruan arituko gara, izan ere hauek aztertuz liburuetan arlo laboralean agertzen diren ezberdintasunen zergatia aztertuko dugu.

Genero-estereotipoak gizonei eta emakumei atxikitzen zaizkien ezaugarriak buruz gizariek partekatzen dituen sinesteen multzoa dira. Genero-estereotipoek, gainera, bi dimentsio dituzte: bata, deskribatzailea, gizonen eta emakumeen ezaugarri eta jardura tipikoei buruzkoa, eta, bestea, preskribatzailea, gizon eta emakumeen ezaugarri edo jokabide desiragarri eta itxaropentsuak adierazten dituenak. Bi sexuen portaera desegokiari buruz dauden itxaropenak gaintuz gero, gizonek eta emakumeek testuinguru jakin batzuetan dituzten aukerak mugatu egin daitezke. Emakumeen kasuan, muga horrek lan arloan eragingo luke, eta haur eta gazte liburuetan ikusten den moduan emeei haien estereotipo kaltegarriak sortzen lagunduko dizkiote.

Emakumeen funtzio nagusia familia zen; haien konpromisoa ez zegoen lan-munduarekin, gizonei beren nahiak lortzeko aukera eman dien horrekin, eta errazago lortu dituzte botere eta ospe postuak. Emakumeok etxeko lanaz eta haurren zaintzaz arduratzen ziren; lan horiek guztiak ez dira oso agerikoak, baina oso garrantzitsuak dira gizariek bizitzarako, nahiz eta ez onartu mundu publikoan egindakoak direla.

XIX. mende bukaeran eta XX. Mundu hasieran emakumeak eskubidea lortu zuten mundu laboralaren sektore txiki batean parte hartzeko, nahiz eta betiere haien etxeko beharrak alde batera utzi gabe, baina haien rol soziala alde batera utziz (etxeko andreak soilik izatearena) eta aspirazio gehiago edukitzera bultzatu zuten. Hau gertatzearen arrazoietakoa bat emakumearen integrazioa hezkuntza arloan da. Goi mailako ikasketak izatea lanbide bat izateko eskubidea ematen zion emakumei. Lanpostu hauetan, emakumeek ez zuten gizonezkoek zuten soldata berdina, nahiz eta lanpostu bat eduki soldata oso murriztua zuten gizonezkoekin konparatu eta haien lanbidea beraien garai hartako ezaugarri fisikoekin lotuta zeuden, hau da, lan karga fisiko handia behar ez zuten lanbideetan egiten zuten lan; kontularia, aldatzailea, zerbitzaria, saltzailea edo irakaslea. Lan postu guzti hauek bigarren mailako lanpostuak ziren, baina ezin da ahaztu haien lanpostu handiena oraindik etxean zegoela, etxeko andrea izatearena.

Garai hartan normala zen eran, emakumearen ikuspuntua gutxitua ikusten zen, haien ezaugarri fisikoengandik edo emazte eta ama izatearen ondorioz. Hori dela eta, haien lanbideetan diru gutxiago irabazten zuten gizonekin konparatuz, nahiz eta gizonek

lan berdina egin eta etekin berdina atera. Baina nola ikusten dute gaur egungo umeek? Zein izango da haien ikuspuntua? Emakumeek lan gutxitua egiten jarraituko dute edo gizonen lan berdina egingo dute? Horretarako ikerketa bat eraman zen aurrera eta hauek izan ziren lortutako emaitzak.

Ikasleen ikuspuntua ikusteko, esan bezala, ikerketa bat eraman zen aurrera (Flecha. C). Ikerketa horretan “Rodrigo Caro” eta “Reyes Católicos” ikastetxeko haur guztiei, 1. Mailatik 6. Maila arte, haien ikuspuntua galdetu zioten marrazkien bitartez, hau da, edozein generoko marrazki bat egin behar zuten nahi zuten lanbidea eginez. Era honetan umeen estereotipoak azaleratuko litzateke eta adinaren arabera duten ikuspuntuaren eboluzioa ikusiko litzateke. Hona hemen ikasle kopurua maila bakoitzeko bi ikastetxeetan.


1. ZIKLOA			
1. MAILA		2. MAILA	
NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK
10	12	12	10
2.ZIKLOA			
3. MAILA		4.MAILA	
NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK
8	14	10	10
3.ZIKLOA			
5.MAILA		6.MAILA	
NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK
12	12	14	6

1.ZIKLOA			
1.MAILA		2.MAILA	
NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK
9	12	9	12
2.ZIKLOA			
3.MAILA		4.MAILA	
NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK
12	9	9	11
3.ZIKLOA			
5.MAILA		6.MAILA	
NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK
10	12	11	12

Ikasleei askatasun guztia eman zitzaien nahi zuten lanbidea egiteko baina arau bakarra marraztutako pertsona emakumea edo gizona izan behar zela izan zen, hau da, ezin zen sexu gabeko pertsona bat izan. Behin emaitza guztiak jaso ondoren, jasotako emaitzak maila guztietan antzekoak izan ziren, hori dela eta, 1. Zikloan lortutakoak soilik agertuko dira hemen, esan bezala emaitza guztiak antzekoak izan zirelako.

Ondorengo taula eta grafikoan umeez egin zituzten lanbideak agertzen dira eta zenbat emakume eta gizonezkoak izan ziren.

	GIZONA	EMAKUMEA
IRAKASLEA	0	5
ERIZAINA	0	17
ETXEKO ZERBITZUA	0	86
LOREZAINA	8	12
NEKAZARITZA	16	0
AROTZA	12	0
IGELTSEROA	4	0
SUHILTZAILEA	16	0
PINTOREA	8	0
TEKNIKARIA	8	0
EHIZTARIA	15	0
SALTZAILEA	5	8
ZERBITZARIA	9	0



Kontuan hartuta grafika gainerako zikloen antzekoa dela, ikus dezakegu emakumeek betetzen dituzten lanbideen eta gizonen lanbideen arteko aldeak erabatekoak direla, eta lanbide guztiek gutxienez esfortzu fisiko txikia eskatzen dutenez, badirudi, gainera, pentsamolde horri erantzuten diola, eta pentsaera hori emakume ahulari eta gizon gogor eta ausartari kalifikatu duela beti.

Aztertutako marrazkietan ikusi ahal izan denez, haiek margotzen duten gizonezkoen finkotasuna etorkizunean izan nahi dutenaren ispilua da. emakumearen irudiari dagokionez, ama islatzen dute, etxeko lanak edo gizonek baino beste lan apalagoak egiten dituzte, ez baitute emakumea gizonak bezala lan egin dezakeen pertsona gisa irudikatzen. Ikastaroak aurrera egin ahala, desberdintasun gutxiago daude, baina, hala ere, genero-funtzioetan desberdintasun asko ikus daitezke. Adinez txikiago denean, literaturaren estereotipo familiarrekin eta bereganatuarekin erantzuten da, eta gizartearen eraginen arabera hazten doan heinean.

Gainera, estereotipoen kontzeptu hau haur eta gazte literaturarekin lotuz, zenbait hamarkadatan, HGL liburuak mutil liburuetan eta neska liburuetan banatu ziren orain dela urte asko, eta eredu maskulino eta femenino estereotipatuak transmititzeko tresna bilakatu ziren. Haurrek eta nerabeek haien nortasuna eraikitzeke irakurtzen, behatzen, ikasten eta esperimendatzen dutenez, estereotipo sexistak agertzea oso kaltegarria da prozesu guzti horretan. Gazteen eta haurren ipuinak, sumisioa, pasibotasuna eta etxekotasuna da transmititzen duten feminitate eredu. Eredu hau txikiei diziplina zorrotz baten bidez ezartzen zaie. Neska txikiak ohitik altxatzen direnetik, arauak betetzera behartzen dituzte arauak zalantzan jarri gabe (Caamaño, 2007:39).

Estereotipatutako genero-rolak txertatzen dituen hezkuntzak jokabide sexistak agertzea sustatzen du, eta, horren ondorioz, jokabide horiek nerabeen artean ikasteak genero-gatazkak ugaritzera eta harreman asimetrikoak ezartzera darama (Díaz-Aguado, 2003, 2009). Horregatik, funtsezkoa da lanean jarraitzea irakurzaletasuna sustatzeko eta ikasleei balio eta eredu berdintasunezkoak eta bidezkoak transmititzen dituzten testu berriak eskaintzeko. Kritika feministatik hiru aukera proposatu ziren hezitzaile, bitartekari eta idazleentzat, hurrekin ipuinak lantzerako orduan. Lehena, aldatu gabeko ipuin originalak kontatzea eta istorioen alderdi kaltegarri eta sexistak ikasleekin lantzea. Bigarrenak, berriz, ipuinak berridaztea da, dauden bereizkeria-alderdi guztiak ezabatuz.

Amaitzeko hirugarrenak, ipuin berriak eta askotarikoak idaztea izango litzateke, ipuin tradizionalen eragozpenik gabeko folklore-motiboak erabiliz (MacDonald, 1982).

Adela Turin-ek *Los cuentos siguen contando. Algunas reflexiones sobre los estereotipos* (1995) lanean gogorarazten digu haur eta gazte literaturak sexismoa aztertzeko balio duela, eta, askotan, har eta emeak indarra-ahultasunaren eskema birsortzen dutela; emakumea etxeko lanez eta umeez arduratzen, eta gizonak aldiz, dirua irabazten dutela. Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, haur eta gazte literatura liburu onenen bidez aztertzen badugu, gizonezkoen eta emakumezkoen eredueta izandako aldaketa ikus dezakegu. Esan daiteke protagonista maskulinoaren nagusitasunak nabaria izaten jarraitzen duela gaur egungo haur eta gazte literaturan. Maskulinoaren barruan, haurrak dira protagonista nagusiak, nerabezaroan izan ezik, non protagonismoa ematen baitiete nerabe eta gazte helduei. Oro har, boterearen protagonismoa eta perbertsioa dituzte gizonak.

Haurren literaturan islatzen diren gizonezko eta emakumezkoen rolei dagokienez, Teresa Colomer Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakasleak *Introducción a la literatura infantil y juvenil* (1999) lanean aipamen berezia merezi du; 1970etik aurrera Espainian argitaratutako 150 lanen corpusa aztertzen du, azken hamarkadetan emakumeak izan duen gizarte-aldaketa haur-literaturan nola islatzen den jasota uzteko. Emakumearen rolak, protagonismo txikia izan duen arren; esan dezakegu garrantzitsua dela liburuetan bost eta zortzi urte bitarteko haurrentzat, haurren beharizan fisikoak eta segurtasun afektiboa asetzen laguntzen dituela ama gisa. Ama akasduak, gaixoak eta abegitsuak ditugu, eta haien ekintza-erradioa etxe barruan dago. Gehienek etxeko lanak egiten dituzte eta familiaren ongizate fisikoa bermatzen dute. Etxetik kanpo lan egiten badu, ezaugarri hori askotan erabiltzen da bizi-baldintza zailak nabarmentzeko, eta kualifikaziorik gabeko eta ikasketarik behar ez duten lanei dagokie.

Gaur egun, ez dugu aurkitzen horrelako sexismo nabaria duen testulibururik. hala ere, ezaugarri sexistek iraun egiten dute hezkuntza-sisteman, eta kultura eta eskola-harreman guztiak hartzen dituzte. Benavente-ren aburuz (1992), ilustrazio batzuk igortzen dituzten mezu sexisten artean, hauek ikus daitezke:

- emakumeen etxeko mundua, gizonezkoen mundu publikoa

- emakumeen lanak kategoria txikiagokoa izan behar du eta gizonen mende egon behar du.
- ideiak gizonen kontua dira, eta otoitzak eta objektuekiko harremana, emakumeen gauzak.

1937 eta 1998 bitartean, Disney-industriaren 10 film aztertu zituen ikerketa bat eraman zen, Flecha. García, C. (2001). Batez ere, kontsumitzaileengan (oro har, haurrak) transmititzen duen irakaskuntzan eta generoaren eremuan jarri zuen arreta, hala nola film horietan gizonak eta emakumeak izandako bilakaeran. Film hauetan eman den eboluzio kontuan hartuta, haur eta gazte literaturako liburuetan antzeko aurrerapena eman dela esan beharko genuke, baina egia ote da? izan ere urteak aurrera joan ahala, batez ere generoaren mundua asko aldatu da eta emakume eta gizonen irudiak eboluzio arigarria jaso du film hauetan ikusiko den eran. Lehenik eta behin, film horien bilakaerari dagokionez, ikusten den alderdirik esanguratsuena da jauzi handia dagoela lehenengo seien eta gainerako lauren artean, urte askotako alde dagoela kontuan hartuta.

Lehen filmetan emakumea sumisa eta gaizto gisa ikusten zen. Seigarrenetik aurrera, ordea, lotura handiagoa zuen errealitatearekin. Lehen pelikula-taldean, emakumeak etxeko andre baten irudia du, etxeko lanetarako erabiltzen dena, eta gutxitan hartzen du gizonari buruzko ekimena. Sumisak emakumezko pertsonaia gehienak bereizten ditu, eta, oro har, ezaugarri fisikoek bakarrik goستن دute. Bigarren taldean, ordea, adimenagatik gehiago baloratzen dute emakumea fisikoagatik baino. Etxean geratu beharrean kanpo beharrak ere egiten dituzte (nahiz eta gizonezkoek baino maila baxuago batean) eta bigarren planoan geratu beharrean ekimena erakusten dute.

Ikerketa honetan ikusi den eran eboluzio positiboa izan du, aurrerapauso izugarria hain zuzen, baina haur eta gazte liburuetan aurrerapauso berdina egongo da? Ikerketa honen bitartez aztertu nahi dugu mundu laboralean emakumeak duten garrantzia haur eta gazte literaturan, izan ere ikerketa honetan zentratuta, gaur egun, 2020.urten aurrerapen izugarria egon beharko litzateke gai honekin baina goazen ikustera ea aurrerapen hau benetakoa ote den edo haur eta gazte literaturan oraindik ez den eman.

Gaur egun, eskolan hainbat liburu erabiltzen dira, balio literario handiagoa edo txikiagoa dutenak, balio zehatz batzuk transmititzen dituztenak. Hala nola ekologia, adiskidetasuna, askatasunaren defentsa, elkartasuna eta abar, literatura-testu batzuetan agertzeaz gain, testu horiek sustatzeko ere balio dutenak. Horiekin batera, teoriarik, itxuraz neutroak diren baina, kasu gehienetan dauden estereotipoak finkatzeko balio duten testuak bultzatzen edo sustatzen ez dituztenak daude. Horrela, zenbait ideia, hala nola sexuen arteko desberdintasuna, gizonen nagusitasun fisikoa, indarraren arazoia, tradizioen jarraipen ukazina, etab., nahiko modu esplizituan agertzen dira obra horietan. Horren adibide dira emandako datuak; 1971n Princetowneko Unibertsitateko irakasle talde batek egindako ikerketa batean gerian geratu zen aztertutako hamabost bildumetatik 881 ipuinen protagonistak haurrak zirela, eta 344koak neskek; azken ondorio gisa, egiaztatu zuten lehen urteetatik haurrek ikasten dutela gizonezkoak direla nagusi eta emeak pasiboak.

Zailtasunak daude HGLan dauden eredu diskriminatzaileak lantzeko. Lehenik eta behin, irakurle txikiek ikasi eta barneratutako gizarte-ereduak islatzen ez dituzten lanak beren esperientzia bizietatik at egon daitezke; beraz, modu naturalean aurkeztutako jarrera ez-sexistak arrotz gisa hautemango dira, eta sinesmen narratiboa galduko dute. Bestalde, zenbait literatura-genero feminitatearekin edo maskulinitasunarekin lotuta daude, eta ez da erraza emakumeak edo haurrak protagonista izatea “beti maskulinizazioaren susmagarri izan gabe”. Gainera, mutilen eta nesken irakurle-kontsumoa desberdina da; emakumeek gehiago irakurtzen dute, eta haiek emakumezkoekin egindako lanak edo ekintzarik ez duten lanak baztertzeko joera dute. Nesken eta mutilen nahiek eta lehentasunek baldintzatzen dute literatura-merkatua.

Azkenik, Petit-ek dioenez (2001), munduaren historian zehar, emakumeek (eta beldurrik gabe beren alderdi femeninoa onartu duten zenbait gizonek) funtsezko zeregina izan dute kultura transmititzeko eta garatzeko eragile gisa. Modu zabalagoan esanda, irakurketa ez da erraz bateratzen ez taldekoitasun birilarekin, ez eta taldeak beti gizabanakoaren gainetik duen gizarte-lotura moduekin ere.

3.METODOA

3.1 METODOLOGIA

Ikerketak egiteko dauden metodologiaren artean lan honetarako ikerketa mistoa (kuantitatiboa eta kualitatiboa) aukeratu da. Johnsonek eta Onwuegbuziek (2004) dioten bezala, ikerketa mistoetan ikertzaileak ikerketa kualitatiboaren eta kuantitatiboaren teknikak, metodoak, kontzeptuak, hizkuntzak edo ikuspegiak nahasten ditu ikerketa bakar batean. Izan ere, ikerketa askok erakutsi dute ikerketa kuantitatiboa eta ikerketa kualitatiboa osagarriak direla.

Ikerketa honetako helburuei eta hipotesiei hobeto erantzuten dio bi metodologiak (kuantitatiboa eta kualitatiboa) gurutzatzeak. Creswellek (2007) baieztatzen duenez, ikerketa mistoek, metodologia kuantitatiboak eta kualitatiboak jasotzen dituenek, ikergaiaren ulermen handiagoa eta zehatzagoa ahalbideratzen dute.

Kasu honetan, alde batetik, kuantitatiboa da egoeraren deskripziorako informazio-datu zehatzak izateko fitxaren bitartez datuak bildu direlako eta datu hauen azterketa eginez, ezarritako hipotesiak baieztatzen edo ezeztatzen diren frogatu ahal izan da. Beraz, zenbaketa eta estatistikaren erabilerari esker, corpusaren patroiak antzeman ahal dira hipotesiak baieztatuz edo ezeztatuz. Idazlearen hitzen eta ilustrazioen bidez, liburuetako neskek eta mutilek betetzen dituzten ardurak (etxeke lanak/ zaintzak) edota lanbideak identifikatuko dira. Baita ere etxean agertzen diren pertsonak zeintzuk diren eta nesken eta mutilen aisialdiari ere begia jarriko zaio.

Bestetik, kualitatiboa da ipuinetako irudiak baloratu egin direlako nola galderari erantzuteko eta informazioa zehatzagoa izateko. Turinen (1995) aholkuei jarraituz, sinbologia sexista antzemateko, bereziki, ilustrazioei erreparatuko zaio. Baita emakumeen eta gizonen lanbideak sailkatzeko irizpide kualitatiboagoak erabili direlako ere. Askotan hitzek datuak hobeto ulertzen laguntzen dute.

Ikerketa burutzeko emandako pausuak

Lehenik, euskal haur eta gazte literatura modernoan sexismoa detektatzeko eta emakumearen eta gizonaren irudia aztertzeko liburuen corpora aukeratu behar da. Gero, liburu horiek aztertzeko eta datuak biltzeko genero-ikuspegian oinarrituta dagoen genero analisirako fitxa sortu behar da.

Ondoren, corpora osatzen duten liburuen irakurketa analitikoa egin beharra dago, sortutako fitxa hori liburu guztietan aplikatu beharra dago. Azkenik, irakurketa egin ahala fitxa betetzen da eta koaderno batean kontu interesgarrienen inguruan apunteak hartzen dira. Behin liburua irakurrita zegoela, apunteekin batera, fitxa betetzen bukatzen da.

Esan beharra dago, ez dela irakurketa arin bat egin behar, kasu honetan detaileek garrantzia handia izan dezaketelako. Baita ere, irudien behaketa sakona egin beharra dago bertatik fitxa osatzeko informazio baliagarria eta beharrezkoa atera daitekeelako.

3.2 HELBURUAK

Liburuek dituzten irudien eta testuen bitartez munduaren ikuspegi zehatz bat eskaintzen da, irakurleari jarrerak eta pautak zehatz batzuk helaraziz. Hauek, askotan, modu esplizitu batean ematen dira eta beste batzuetan, ordea, modu inplizituan, baina ukaezina da umeengan duten eragina. Izan ere, irakurleak liburuetan islatuta dauden rol sozialak egokitzat hartu ohi ditu.

Adela Turin-ek gogorarazten digu haur eta gazte literaturak sexismoa aztertzeko balio duela, eta, askotan, har eta emeak indarra-ahultasunaren eskema birsortzen dutela; emakumea etxeko lanez eta umez arduratzen, eta gizonak aldiz, dirua irabazten dutela. Gaur egun, ordea, emakume langilea lan-zuzenbidean babesteak izugarritzko aldaketa izan du azken mendean, lanaren beraren balioa hobeto ulertzearen ondorioz, bai eta emakumeen identitatea eta familia-bizitzako erantzukizunen banaketa ere. Lan egiten duen emakumearen babesari dagokionez, haren duintasun bera eta erregulazio baten akatsak hobeki ulertzearekin zuzeneko zerikusia duen bilakaera nabari da; izan ere, arautze horrek kostu handiegia ekarri zion enplegu-emailearentzat emakumeen eskulana kontratatzeari.

Aldez aurretik esandakoa kontuan hartuta, onuragarria izango litzateke emakumeak lan munduan duen bilakaera hori haur eta gazteen literaturan ikustea,

emakumeek egiten dituzten lanak aztertuz eta XXI. mendean haurren eta gazteen literaturan emakumearen eta gizonaren artean dauden diferentziak argi ikusiz.

Beraz, ikerketa honen helburu nagusia haur eta gazte literaturan lan munduaren inguruan emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna aztertzea da, genero ikuspegitik sexismoa aztertzeko. Beste era batera esanda, emakumeek eta gizonak haur liburuetan egiten duten lana aztertzea, eta genero estereotipoak finkatutako lanak egiten duten aztertzea.

Kontuan izan behar da, aztertutako corpus guztia eskoletan aurkitzen diren liburuetan oinarrituta dagoela, hain zuzen ere 6-8 urteko adineko ikasleek haien geletan duten liburuetan. Nahiz eta ikerketa hau ikastetxe batean zentratuta egon, izan ere aukeratutako liburuak Inazio Zubizarreta ikastetxeko geletan daudenak izan, kontuan izan dut ikerketa hau orokorra izango dela eta gainerako ikastetxeetan ere, orokorrean, antzeko liburuak egongo direla eta ez dela aldaketa nabaririk egongo, beraz, ondorio orokorrak dira, hau da, ez dago ikastetxe batean zentratuta.

Literatur kritikaren esparruan, pertsonaiaren azterketak hausnarketa teoriko eta metodologiko ugari eragin dituelarik eta kritika feministaren ardurei jarraikiz, hainbat helburu eta hipotesi izango dira lan honen abiapuntua.

HELBURU NAGUSIA:

- Haur eta gazte literaturan lan munduan inguruan emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna aztertzea da, genero ikuspegitik sexismoa aztertzeko.

BESTELAKO HELBURUAK:

- Gaur egungo egoera aztertzea eta liburuetan agertzen den egoerarekin konparatu, honi kritika eginez.
- Ikasleek liburuetatik barneratzen dituzten estereotipoak aztertzea eta hauek zelan kaltetzen dioten haien etorkizunari.
- Gizarteak mundu laboralean emakumeen inguruan duen iritzia apurtzea eta berdintasunaren alde egitea.
- Haur eta gazte literaturari kritika egitea eta honen aldaketa proposatzea edo aipatzea, genero berdintasunaren alde egiteko, eta ikasleei balio sozial eta etiko egokiak eskainiz.

3.3.HIPOTESIAK:

Gradu amaierako lan honetan egingo dudan lanaren hipotesiarekin hasteko, esan behar dut haur liburuetan ematen den generoarekiko lan-diferentzia aztertuko dudala. Desberdintasun horiek argiago ikusteko, 6-8 urte bitarteko haur liburuetatik abiatuko naiz azterketa egiteko eta aldea argiago ikusteko, Praktikum III-an zehar egondako ikastetxetik hartuko ditut liburu hauek, eta ondorengo izango dut kontuan: haur liburuetan generoari dagokionez dagoen langile-kopurua, hau da, zenbat gizon eta zenbat emakume, ikasketadun lanbideak, ikasketarik gabeko lanbideak eta kirola, lanbide moduan hartuta, aztertzeko beste arlo baten moduan.

Nire hipotesiei dagokienez, esan behar dut kontuan hartu dudala gizarteak genero desberdintasunari dagokionez duen errealitate ukazina, eta nahiz eta nire iritzi pertsonalarekin zerikusirik ez eduki, errealitate zatar honek erakusten diguna da. Gaurko gizartea kontuan hartuta, uste dut haur liburuetan alde handia egongo dela hainbat faktore ezberdinetan gizonarekin eta emakumearekin. Faktore horiek sakonago aztertuz, gizonak zein emakumeak liburuetan lan egiten agertzen diren kopuruari dagokionez, alde handia aurkituko dudala uste dut, izan ere, gizarteak gizonari garrantzi gehiago ematen diolako historia guztian zehar eta hauen presentzia emakumeena baino garrantzitsuagoa dela uste delako.

Aztertuko dudan beste faktore bat prestigiodun lanbidea izango da, eta liburuetan zer generoari ematen dioten preferentzia lanbidea aurrera eramaterako orduan. Prestigiodun lanbide gehienak gizonaizkoek egingo dituztela uste dut, hala nola; astronauta, erizaina, medikua, etab. Nahiz eta alderdi askotan gizarteak emakumeei irudi langilea ematen dien zenbait lanbidetan, hala nola medikuntza arloan, uste dut liburu horietan ez zaiela irudi hori emango aurrez esandakoagatik, hau da, gizonaren irudia emakumearena baino handiagoa delako eta haur batek liburu bat irakurtzen duenean, tristuraz, gizon baten irudiak emakume batena baino erakargarriagoa izango da haurrengan, hori dela eta prestigiodun lanbideak gizonak egingo dituztela uste dut. Ildo beretik, ikasketadun lanbideei dagokionez, nire iritzia ez da aldatzen. Izan ere, nire ustean, nahiz eta ikasketadun lanbide guztiak prestigiodunak ez izan, umeen atentzioa deitzen dute eta hauek gizonaizkoak izatea arreta gehiago deituko die umei, gaur egungo gizarteak gizonak emakumeen gainetik jartzen dituelako

Prestigio gabeko lanbideei dagokienez, emakumezkoak indar gehiago hartuko dutela uste dut, lehen aipatu bezala haien irudia gutxietsia dagoelako gaur egungo gizartean eta ez direlako konturatzen emakumeak gizartean duen indarraren inguruan eta lanbideei dagokionez, egin dezaketen lanaren inguruan. Nahiz eta hauek indar gehiago hartu prestigio gabeko lanbideetan, gizonzkoen presentzia handia izango dela ere uste dut, gizona une oro haur liburuetan presente egonez imajinatzen dut eta nire naia nire hipotesi hauek ez betetzea da.

Hipotesiekin amaitzeko, haur liburuetan agertzen diren kirolarien inguruan, genero aldetik ez dut inolako zalantzarik gizonzkoek hartuko dutela presentzia handiena, guztia ez esateagatik. Kirolaren arloan, oraindik, gizonak emakumeak baino gehiago direla uste da, ez soilik gizarteak, baizik eta pertsona askok uste dute emakumezkoak ez direla gai gizonzkoak egiten dituzten gauza berdinak egitera, gainera, pertsona hauen artean emakumeak ere aurkitu ditzakegu, nahiz eta maila txikiagoan, baina emakume askok ez dute sinesten haien gaitasunetan eta gizonak baino gutxiago direla esaten dute kirolaren arloan. Beraz, errealitate hau ikusita, uste dut hau liburuetan ikusiko dela eta kirolari guztiak gizonak izango direla uste dut.

Borobilduz, hauek dira planteatzen ditudan hipotesiak:

- Kopuruari dagokionez, gizonak emakumeak baino presentzia handiagoa izango dute, hau da, lanbide gehiagotan gizonak agertuko dira emakumeak baino.
- Ikasketadun lanbideetan, gizonak ere hartuko du garrantzi handiagoa, gizartearentzat gizonaren presentziak duen esanahia dela eta.
- Ikasketarik gabeko lanbideetan, nahiz eta emakume gehiago agertuko diren haur liburuetan, gizonzkoek presentzia handiagoa edukitzen jarraituko dute.
- Azken hipotesiarekin amaitzeko, kirolak direla eta, gizon kirolari gehiago agertuko dira haur eta gazte liburuetan neska kirolariak baino.

3.4.CORPUS-a:

Badakigu, haur eta gazte literaturaren unibertsoa oso zabala eta anitza dela. Gainera, liburuak modu ezberdinetan sailkatu daitezke (adinaren arabera, gaiaren arabera, jatorriaren arabera, egileen arabera, bildumaka, argitaratutako urtearen arabera,

etab). Horrexegatik argi izan behar da zer nahi den ikertu, zertarako eta irizpide batzuen bitartez lagin adierazgarri bat finkatu.

Lehenik eta behin, aurretiaz azaldutako tesi honetako helburuak eta hipotesiak oinarri hartuta, eta lana eta ikerketa errazteko eta aberasteko asmoz, corpusean ziklo bat soilik aztertuko da, hain zuzen 6-8 urte bitarteko ikasleek irakurtzen duten liburuetan zentratuta egongo da.

Lan hau aurrera eramateko, aipatu bezala, nire praktikaldia burutu nuen ikastetxean (Inazio Zubizarreta) hartutako 50 liburuetatik abiatu naiz. Liburu hauek 6-8 urte bitarteko geletan, hau da, 1. eta 2. Mailan zeuden 50 liburu hartu nituen, nahiz eta gela guztietan liburu gehiago egon gela batean zentratu nintzen konkretuki eta 50 liburu aukeratu nituen lagin paregabea iruditzen zaidalako eta hauek hartzeko gelan zegoen kutxa batetik hartu nituen, izan ere 5-6 kutxa zituzten, eta kutxa guztietan euskarazko liburuak zeuden, beraz, kutxa bi hartu eta liburu horietan zentratu nintzen. Liburu horietan agertzen ziren lanbideak aztertu nituen eta generoaren arabera sailkatu. Era honetan ikastetxeko haur liburuak gaur egungo gizartearekin bat datorren edo ez aztertuko dut eta liburuak gaur egungo egoerarekin kontziente diren, hau da, genero berdintasuna bultzatzen duen eta umeentzat benetan hezigarriak diren ala ez.

3.5. TRESNAK

Ikerketa honetako corpusa osatzen dituzten liburuetatik ahalik eta informazio gehien eta interesgarriena biltzeko asmoz, tresna edo genero analisirako fitxa bat prestatu egin da. Hasierako eta oharkabeko irakurketa pertsonalak eta atseginak ematen duen subjektibotasuna gainditzeko, sortutako fitxak genero-ikuspegitik hainbat detailetan arreta jartzeko parada eskatzen dizu. Fitxa atal ezberdinez osatuta dago eta zati bakoitzak corpuseko liburu bakoitzetik informazioa modu objektibo batean lortzeko balio du. Etorkizunean fitxan agertzen diren atal bakoitzean modu indibidualean (espazioan, deskribapenetan...) sakontzeko aukera egon daiteke

Fitxaren atal bakoitza erabiliko da berari dagokion informazioa lortzeko. Horretarako, liburua bakoitzaren testuaren azterketa egingo da. Baita ere, istorioan gertatzen diren ekintzetatik eta ilustrazioetatik informazioa atera da fitxa betetzeko. Halaber, batzuetan testuan agertzen dena ilustrazioetan islatuta dagoen arren, beste batzuetan ez dago letren eta irudien arteko harremanik, modu honetan informazio

gehigarria helarazten delarik. Ikerketa kualitatiboaren eta kuantitatiboaren bidez, aukeratu diren liburuen azterketa sakonago bat egiteko aukera dago. Arestian aipatu bezala, gure helburuak betetzeko eta hipotesiak egiaztatzeko garrantzitsuak izan daitezkeen elementuetan zentratuz.

Zehaztasunetan murgilduz, hauek dira genero analisirako fitxa osatzen dituzten atalak:

- Lehenengo atala: Atal honetan liburuetan agertzen diren lanbideetan zentratuko gara, eta lanbide hauek emakumezkoak edo gizonezkoak egiten ari diren, era honetan lanbidea jarriz eta emakumea edo gizona den lanean dagoena.

	KOPURUA	GEHUNEKOA
GIZONA		
EMAKUMEA		
GUZTIRA		

- Bigarren atala: Generoaren arabera ikasketarik gabeko lanbideak aztertuko da. Lanbideei arreta handiagoa jarriz eta generoen arabera sailkatuta dauden lanbideak aztertzeko, fitxa bat sortuko da, gizonek literaturan lan munduan duten garrantzia ikusteko.

IKASKETARIK GABEKO LANBIDEAK	GIZONA	EMAKUMEA
LANBIDE 1		
LANBIDE 2		

- Hirugarren atala: Generoaren arabera ikasketadun lanbideak aztertuko dira. Gizonezkoen eta emakumezkoen aldea eta garrantzia argiago ikusteko, goi mailako lanbideak nortzuk egiten dituzten aztertuko da.

IKASKETADUN	GIZONA	EMAKUMEA
--------------------	--------	----------

LANBIDEAK		
LANBIDE 1		
LANBIDE 2		


-Laugarren atala: Azkenik, Liburu hauetan ageri diren kirolariak aztertuko dira, kirolari hauek emakumezkoak edo gizonezkoak diren eta gaur egun gizarteak egiten duena jarraitzen duen haur eta gazte literaturak, hau da, kirol munduan emakumea alde batera utzi eta gizonezkoek bakarrik garrantzia hartzea. Era honetan zenbat emakume kirolari eta zenbat gizon kirolari agertzen diren haur eta gazte literaturan aztertuko dugu, ondoren kritika egin ahal izateko.

KIROLAK	GIZONA	EMAKUMEA
KIROLA 1		
KIROLA 2		


4.EMAITZAK

Hipotesiak eta helburua atera eta gero, liburuak hartu eta egin beharra burutu nuen, horretarako hainbat taulaz eta grafikoaz baliatu naiz hauek hobeto ikusteko eta begi-bistaz arreta handiagoa deitzeko, hona hemen aretarako datuak.


	KOPURUA	EHUNEKOA %
GIZONA	40	%69,0
EMAKUMEA	18	%31,0
GUZTIRA	58	




IKASKETADUN LANBIDEAK	GIZONA	EMAKUMEA
FISIOTERAPEUTA	BAI	
MEDIKUA	BAI	
ENPRESA BURUA	BAI	
MARRAZKILARIA	BAI	
DENTISTA		BAI
DENTISTA	BAI	
MEDIKUA	BAI	
ERIZAINA	BAI	BAI
SUKALDARIA		BAI
IRAKASLEA		BAI
HEGAZKIN GIDARIA	BAI	
ETXE EGILEA	BAI	
TARTAGILEA		BAI
ASTRONAUTA	BAI	
SUKALDARIA	BAI	
DISEINATZAILEA	BAI	
OKINA	BAI	
IRAKASLEA		BAI
UDALETXEKO LANGILEA	BAI	
IRAKASLEA		BAI
IRAKASLEA		BAI
BIOLOGOA		BAI
KIMIKOA	BAI	
INFORMATIKOA		BAI
HACKER-a	BAI	
GUZTIRA	16	10



IKASKETARIK GABEKO LANBIDEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
LIBURU ZALTZAILEA	BAI	
MUSIKA-TALDEA	BAI	
JOZTUNA	BAI	BAI
IPUIN KONTALARIA	BAI	
IDAZLEA	BAI	
DANTZARIA		BAI
ZAPATARIA	BAI	
GOZOGILEA	BAI	
JOZTUNA		BAI
BATERI JOTZAILEA	BAI	
TROMPETA JOTZAILEA		BAI
EHIZTARIA	BAI	
MARINELAK	BAI	
ABESLARIA	BAI	
GARBITZAILEA		BAI
BATERI JOTZAILEA	BAI	
GUIARRA JOTZAILEA	BAI	
PIANISTA	BAI	
TAXISTA	BAI	
ZAINZAILEA		BAI
TABERNARIA	BAI	
UME ZAINZAILEA		BAI
GUZTIRA	16	7



KIROLAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
TXIRRINDULARIA	BAI	
MOTORISTA	BAI	
KORRIKALARIA	BAI	
TRAPEZISTA		BAI
TXIRRINDULARIA	BAI	
MOTORISTA	BAI	
FUTBOLARIA	BAI	
ATLETA	BAI	
SASKIBALOI JOKALARIA	BAI	
GUZTIRA	8	1



5. ONDORIOAK:

5.1 IKERKETAREN ONDORIOAK

Nolakoak dira euskal haur eta nerabeek irakurtzen dituzten liburuetakoa neskak/emakumeak eta mutilak/gizonak? Zeintzuk dira haur eta gazte literatura modernoak transmititzen dituen rolak eta estereotipoak? Ba ote dago sexismoa haurrei eta nerabeei zuzendutako letretan eta irudietan? Urte hauetan indarrean jarritako hezkidetzaren planek eta berdintasunerako legeek eragina izan al dute euskal haur eta gazte literaturan? Gradu amaierako lan hau haur eta gazte literaturan lanbidearen arloko generoak duen berdintasunean edo ezberdintasunean finkatu da, helburu orokor bezala Haur eta gazte literaturan mundu laboralaren inguruan emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna aztertzea da, genero ikuspegitik sexismoa aztertzeko hartuz, ondorio

hautan nik planteatutako helburuen inguruan eta emaitzak jarritako hipotesiekin bat datozen edo ez konparatuko ditut.

Aurreko atalean, hautatutako liburuen azterketaren emaitzak aztertu dira, eta jarraian, horiek kontuan hartuz atera diren ondorioak aurkeztuko dira. Esan bezala, ondorioak aztertzeko orduan, helburu nagusia lanaren oinarri bezala hartuz, planteatuta zeunden gainerako lau helburuetan arreta jarriko da.

- Gaur egungo egoera aztertzea eta liburuetan agertzen den egoerarekin konparatu, honi kritika eginez.
- Ikasleek liburuetatik barneratzen dituzten estereotipoak aztertzea eta hauek zelan kaltetzen dioten haien etorkizunari.
- Gizarteak mundu laboralean emakumeen inguruan duen iritzia apurtzea eta berdintasunaren alde egitea.
- Haur eta gazte literaturari kritika egitea eta honen aldaketa proposatzea edo aipatzea, genero berdintasunaren alde egiteko, eta ikasleei balio sozial eta etiko egokiak eskainiz.

Jarritako lehen helburua kontuan hartuz, nire hipotesia ondorengoa zen, haur eta liburuetan alde handia egongo dela hainbat faktore ezberdinetan gizonarekin eta emakumearekin. Faktore horiek sakonago aztertuz, gizonak zein emakumeak liburuetan lan egiten agertzen diren kopuruari dagokionez, alde handia aurkituko dudala uste dut, izan ere, gizarteak gizonari garrantzi gehiago ematen diolako historia guztian zehar eta hauen presentzia emakumeena baino garrantzitsuagoa dela uste delako.

Ikerketa honetako datuek berretsi egin dute gizonezkoak askoz ere lanbide gehiagotan hartzen dutela parte emakumearekin konparatuz, izan ere ikerketan ikusi den bezala, liburuetakoko lanbide guztiak kontuan hartu eta gero, %69 gizonezkoak izan dira eta emakumezkoek %31 emakume langile soilik agertu dira ikerketa honetan aztertutako laginean.

Gaur egun emakumeak lanbideetan duen postua eta jasan duen eboluzioa kontuan hartuz, Iglesias Fernandezek 2010 urtean egindako ikerketatik oinarrituz Espainian, 1987an, emakumeen jarduera-tasa %31,8koa zen, eta 2007ko bigarren

hiruhilekoan, berriz, %49koa. Hau da, Espainiako emakumeek 17,2 puntu igo dute lanpartaidetzaren maiztasuna azken hoge urteotan.

Beraz, ikusi daitekeen moduan, Haur eta Gazte Literaturako liburuek oraindik ez dute bermatzen gaur egun gizartean dagoen egoera, eta horren ondorioz gaur egungo umeez oraindik betiko estereotipo berdinekin jarraitzen dute eta emakumeen irudia irudi gutxietsi moduan ikusten dute, bigarren mailako generoa izango balitz bezala eta genero ahul moduan.

Bigarren hipotesian ikasketadun lanbideei buruz aritu nintzen, hipotesi honetan lanbide hauek gizonezkoak egingo zutela aipatu nuen, kontuan izanda gaur egungo gizarteak dituen estereotipoak emakumearen ahuleziaren ingurukoak direla eta bigarren mailako generotzat hartzen jarraitzen dela. Bestalde, hipotesi hau, estereotipoekin zerikusi handi du, hau da, gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan oraindik emakumeak ez badira gizonezkoen kopuru berdina ikasketadun lanbideetan umeez barneratu egingo dute liburuetan ikusitakoa eta gizartean dagoen genero ezberdintasuna txikitatik barneratuta izango dute.

Ikerketan ateratako datuak kontuan hartuz, aipatutako hipotesia bete egin da, nahiz eta nik uste baino ehuneko txikiago batean, baina gizonezkoek emakumezkoak baino ikasketadun lanbide gehiagotan egiten dute lan, %61,5 gizonak dira eta %38,5 emakumeak. Bestalde, gaur egungo gizartearekin konparatuz, emakumezkoenak lanbideak etxe andereak, gizarte-zerbitzuetako jarduerak, garbiketako industria-jarduerak, lehen hezkuntza, zerbitzu pertsonaletako hainbat jardura, janzkiak egitea, jantoki kolektiboak, osasun-jarduerak, farmazia-produktuen txikizkako merkataritza eta espezializatu gabeko txikizkako merkataritza dira. Jarduera horien artean daude, gutxienez, eskatzen den irizpidetik gorako emakumeak (% 50 emakumeak). Horietako bat izan ezik, guztiak zerbitzu-jarduerak dira (Fernandez, I. 2010).

Ondorioz, egoera hauek Haur eta Gazte Literaturan aldatu behar dira, izan ere marko teorikoan aipatu dudak bezala, mutilak eta neskek haien nortasuna modelatzen ari dira txikitatik, eta, beraz, literaturaren eta beste arte eta kultura adierazpen batzuen eragina funtsezkoa da (Aparicio, I. 2016). Gainera, mutilen eta nesken eguneroko bizitzan genero-estereotipoak agertzea (Haur liburuetan, literatura lanetan, etab.) genero-identitatearen eraikuntza baldintzatzen du, eta sineste eta jarrera sexistak agertzea bultzatzen dezake; horrek gizon eta emakume tolerantak, errespetuzkoak, aske eta

zoriontsu gisa heltzea eta haztea eragotz dezake (Díaz-Aguado, 2003, 2009). Esan dezakegu HGLk balio kultural eta ideologikoak transmititzeko kanal garrantzitsua dela, eta “belaunaldi berrien sozializazio-funtzioa izan du beti” (Colomer, 2010:49).

Machadok (in Luengo, 2013b) emakumezko pertsonaia ugariren narrazioak erakusten ditu familia-istorioetako protagonistak izanik; batzuetan, eredu tradizionalak errepikatzen dituzte, eta, beste batzuetan, beren pertsonaiak emakume liberatuak, independenteak eta abenturazaleak dira, arlo laboralean ere gixonak egiten dituzten lan berdinak (ikasketadun zein ikasketarik gabeko lanbideak) edo indartsuagoak eginez eta gaur egungo gizartea alde batera utziz, kulturak ezarritako genero-estereotipoarekin hausten dute izan ere, eta gizarte berdintasun bat lortzeko Machadok egiten duena egin beharko litzateke.(Luengo, 2013b: 198-199).

Ondorio esanguratsu batzuk esatearren, aipatu dezakegu oraindik emakumea ez dagoela behar bezala irudikatuta ikasgeletan Haur eta Gazte literaturan lan munduaren arloan, izan ere oraindik bigarren planoan daudelako eta gizonez emakumeak baino aktibitate handiagoa dutelako, gainera, gaur egungo datuek ahalbidetzen dute gaur egungo errealitatea ez dela liburuek transmititzen duten berdina generoari dagokionez, hau da, kopuruaren aldetik lan mundua berdintasuna da nagusi, nahiz eta ikasketadun lanbideetan, gaur egungo gizartean oraindik, gizonak izan indarrean daudenak eta emakumeak bigarren planoan egonda zerbitzu jarduerak egiten (Fernandez, I. 2010).

Hau guztia dela eta oraindik lan munduan behintzat sexismoa dagoela ikus dezakegu, eta klaseetan aurkitzen ditugun Haur eta Gazte liburuek eboluzio bat behar dutela, alde tradizionala alde batera utziz eta gaur egungo egoeraren inguruan gehiago idatziz eta irudikatzen, kasu honetan lan munduaren inguruan baina orokorrean genero berdintasunaren inguruan (izaera, pentsamendua, jarrerak, etab.).

Hirugarren hipotesiari erreparatuz, aurrekoaren antzekoa izango litzateke baina ikasketarik gabeko lanbideekin, hau da, emakumeek ikasketarik gabeko lanbide gutxiagotan parte hartuko zutela gizonekoekin konparatuz gero, izan ere, lan hauek indarrarekin eta jarrera indartsu batekin lotsen nituelako eta gaur egungo estereotipoak kontuan hartuz gizonezkoak izango zirela uste nuelako.

Datuak ikusi eta gero, ondorioztatu daiteke hipotesia bete egin dela eta emakumeen kopurua, orokorrean, bai ikasketadun lanbideetan eta ikasketarik gabeko

lanbideetan gizonen kopurua baino murriztuagoa dela. Ikasketarik gabeko lanbideetan, %69,6 gizonenak dira eta %30,4 emakumeenak. Baina zergatik ematen da emakumeen irudi hau Haur eta Gazte Literaturan, gaur egungo gizarteak kontrakoa irudikatzen baldin badu?

70eko hamarkadan, hainbat azterketek erakutsi zuten lanean genero-bereizkeria estereotipoetan oinarrituta zegoela, eta horren arabera, gehiago baloratzen zirela ezaugarri instrumentalak edo maskulinoak (Broverman et al., 1972). Gain-balorazio horrek soldata eta ospe txikiagoarekin lotutako lanpostuetara eramaten zuen emakumea eta botere-postuetara iristea oztopatzen zuen. Bere lan profesionalaren gutxiespena eragiten zuen, bere portaera inkongruentea zelako, postuaren ezaugarriekin edo bere generoaren ezaugarri estereotipikoekin (Heilman, 1983). Gizonen eta emakumeen arteko lanaren banaketa tradizionala aski da genero-estereotipoak sortzeko eta gizonen eta emakumeen arteko botere-asimetria indartzeko. Gainera, estereotipo hauek haur eta gazte liburuetan ere ikusi ditzakegu, gizonen emakumeen baino garrantzi handiagoa emanez eta soldata eta ospe handiagorekin lotutako lanpostuetara hurbilduz hauek.

Azken hipotesiarekin bukatuz, kirola lanbide moduan hartuz, erreparatutako liburuetan agertzen ziren kirolak erreparatu nituen, eta datuak atera baino lehen argi neukan gehienak (denak ez esateagatik) gizonenak izango zirela eta emakume kirolariren bat baldin bazegoen malgutasunarekin zerikusia zuen zerbait egiten izango zela, izan ere gaur egungo gizarteak eskaintzen digun estereotipoak horiek direlako.

Analisi enpirikoak hipotesian esaten duguna berretsi egin digu, geletan aurkitzen ditugun liburuetan gizonenak dira kirolari gehienak eta emakumeak bigarren planoan geratzen dira. Izan ere, %88,9 kirolari gizonenak zeuden liburuetan eta %11,1 emakumeenak, eta aipatu bezala, emakume bakar bat soilik agertu zen aztertutako geletako liburuetan eta malgutasunarekin zerikusia duen kirola egiten, trapezista.

Jaiotzen garen momentutik emakumeen eta gizonen bereizketa egiten da, genero batekoa edo bestekoa izanik zeregin ezberdinak banatzen direlako. Bereizkeria hau Haur eta Gazte Literaturan txertatuta ikusten dugu, helduek haurrei modu ezberdinetan tratatzen diete neska edo mutila izateagatik. Honekin lotuta, habitus maskulinoak eta femeninoak daude gizartean, hau da, nesken eta mutilen ekintzak bideratzen dituzten eskemak (Peña eta Rodriguez, 2002). Gainera, ideia “femeninoak” oinarri bezala hartuta garatu ziren nesken kirolak, esaterako, hockey-a; stick-aren

kontrol zurruna eta bere arauak 10 espazioko mugimendua zuzentzen dute. Gimnasia, patinaje artistikoa eta igeriketa sinkronizatua ere, besteak beste, estetikotasuna erakusten duten jarduerak direnez, “emakumeen” kirolak bezala identifikatuak izan dira. Aldiz, agresibitatea, nekea, lehiakortasuna, etab. erakusten duten kirolak, “gizonen” kirolak bezala izendatu dira. Emakumeak kirol munduan bigarren plano batean egotean, kirola gizonezkoentzat dela dirudi.

Poliki-poliki aurrera egin arren, gizartean oraindik kirolen gaineko estereotipoak daude eta hauek alde batera usteko aurrera pauso bat izango litzateke lehen hezkuntzako geletan dauden literatura liburuetan plasmaturik ikustea. Esaterako, Susanna Soler-ek (2010) 1998an bere bizitzako partidurik onenatariko bat jolastu ostean, honela zoriondu ziotela aipatzen du: “¡Felicidades! ¡Has jugado como un hombre!”. Horren aurrean, Susannak galdera interesgarri bat planteatu zuen: Zergatik jolastu behar da “gizon bat bezala” ondo jolasteko?

Kirolean ematen den genero ezberdintasuna, gizartean dagoen androzentrismoarengandik etor daiteke. Genero ezberdintasun honekin bizi garen arren, egunero-egunero fisikoki aktiboak diren emakume kirolari, entrenatzaile edo bestelako jardueretan parte hartzen dutenek, erronka hori gainditzeko eta ezarrita dauden estereotipo femeninoei aurre egiteko lana egiten dute (Sagarzazu eta Lallana, 2012).

5.2 ONDORIO OROKORRAK:

Azken finean, liburuak neurri batean errealitate soziokulturalaren isla dira. Liburuak ez dira neutroak, mezuen eta irudien bitartez egileek beraien munduaren errealitatearen interpretazioa zabaltzen dute edo munduaren errealitatea nolako izatea gustatuko litzatekeen erakusten dute. Ikerketa honetan bezala liburuak bere osotasunean, hitzak eta marrazkiak, aztertu egin behar dira eta hauen irakurketa kritikoa egin. Izan ere, ikusi ahal izan dugun bezala, nahiz eta gizartean hainbat arlotan aurrerapenak egin badira ere, oraindik liburuetan ez da gaur egungo errealitatea transmititzen arlo guztietan genero lanbideei dagokienez, eta emakumeek bigarren planoan jarraitzen dute, haien protagonismoa alde batera utziz eta irudi nagusia gehienetan gizonezkoa izanez.

Xabier Etxanizek (2019), “Ipuina eta albuma: emakumeen ikusgarritasuna XXI. mendeko haur eta gazteen euskal literaturan” lanean, 1980ko hamarkadaz geroztik,

emakumeek Euskal Herrian HGLren sorkuntza-prozesuan izan duten presentziaren bilakaera erakusten du, eta mundu hori, tradizioz maskulinoa izan dena, feminizatzen ari dela erakusten digu (idazleak, ilustratzaileak, editoreak...), batez ere, azken urteotan.

Aurrerapen handiak egon diren arren, sexismoak presente egoten jarraitzen du eta hau arazo bat da ez dugulako desberdintasun sozialekin amaitzen. Gainera, kasu batzuetan badirudi berdintasun irudi bat eskaini nahi dela nesketan tradizionalki mutilen estereotipoak eta ezaugarriak izan direnak islatuz eta ez da prozesu berdina antzeman mutiletan, esate baterako, normaltzat jotzen da neskek suhiltzaile lanetan ibiltzea baina ez da normaltzat ikusten gizon bat bere sukaldea garbitzen ikustea. Beraz, modu batean edo bestean oraindik hitzek eta irudiek estereotipo maskulinoak eta femeninoak transmititzen jarraitzen dituzte, eta ikerketa honetan konkretuki aztertu den gaian batez ere lanbideen arloan.

Diskriminazioari eta desberdintasun ezari aurre egiteko liburuetaiko sexismoa ikustaraztea beharrezkoa litzateke. Besteak beste, interesgarria litzateke bi sexuentzat lanbide mota guztiak, desberdinak eta anitzak eskaintzen dituen literatura izatea haurren eskura; gizonezko erizainak eta emakumezko medikuak, gizonezko garbitzaileak eta emakumezko epaileak. Era honetan estereotipo gabeko etorkizun bat eraikitzeke asmoa edukiz eta gazteen aldeko apustua eginez. Baina nola lortu genezake hau?

Zer eginkizun dute eskola-instituzioak eta HGLk genero-estereotipoei eusteko orduan, eta nola deseraikitzen dira estereotipo sexistak eta portaera diskriminatzaileak? Nola eraiki beste literatura bat pentsamendu kritikoa garatzeko? Alde batetik, Ana María Machadok *Clásicos, niños y jóvenes* (2004: 148) lanean dioenez, “Kritikoki irakurtzea da erantzunetako bat. Horrek esan nahi du ez dugula irakurtzen erreberberazio-jarreran bat etortzeko, ezta betiko desafio batean disentatzeko edo gezurtatzeko ere” “Ondo irakurtzea toleranteagoa eta apalagoa izatea da, aniztasuna onartzea, desberdintasuna eta dibergentzia onartzeko prest egotea” (op. Cit: 150)

Bestetik, Aguilarrek eztabaida asanblearioak, gela birtuala, HGLren tertulia dialogikoa eta egunkari dialogikoak proposatzen ditu. Praktika horiek “sexu-aniztasuna barneratzeari, giza eskubideen defentsari eta herritartasun kritikoa sortzeari lotuta daude” (2017: 7.).

Baita lan-eremuan arrakastatsuak eta boteredunak diren emakumeak ere beharrezkoak lirateke. Beste gizon eredu batzuk jasotzen dituzten liburuak ere beharrezkoak dira, esate baterako, etxeko lanak eta zainketa lanak burutzen dituzten gizonak islatzea, kolore arrosa erabiltzen dutenak edo sentikorrek direnak. Lan honek erakutsi du nahiko zaila dela gizartean oso erroturik dauden aurreiritzi, estereotipo, ohiturak edo usteak aldatzea, baina bestalde ikerketa lan honek ere erakutsi du posiblea dela gaur egungo ikasleei, hau da, etorkizuneko belaunaldiei gizon-emakumeen arteko parekidetasuna lortzeko ahalegina egiteak merezi duela.

5.3 AURRERA BEGIRA:

Ikerketa hau aurrera eramateko beharrezkoak izan ditut hainbat gauza berri barneratzea eta bereganatzea ikerketa behar bezala aurrera eramateko, izan ere ikerketa honen bitartez gauza berri asko ikasi ditut eta Haur eta Gazte Literaturak duen garrantziaz jabetu naiz, bai gizarte mailan eta bai eskola mailan. Horrez gain, gaur egungo umeen liburuetan ere gizarteak emakume eta gizonaren inguruan esleitutako estereotipo asko daudela jabetu naiz, era inplizitu zein esplizitu batean, baina liburuak aztertuz gero ikusi ditzakegunak. Etorkizunera begiratzuz abiapuntu bat izan daiteke literaturak duen garrantzia kontuan hartuz haurren etorkizuna eraikitzeko, baina horretarako ez du literaturak soilik lan egin behar, estereotipoak alde batera utzi behar dira eta familiak eta gizarteak parte hartze zuzena eduki behar dute horretan, gaur egungo haurren alde apustu eginez eta genero-rolen gabeko etorkizun baten alde eginez.

Ikerketa lan hau egitea aberasgarritzat jotzen dut ikerketa mundua ezagutzeko aukera eman digulako, baina bereziki, gaur egungo eskoletan aurkitu ditzakegun liburuek mundu laboralean umeek gizonen eta emakumeen irudiak eta ereduak ezagutzeko aukera eman digulako. Oraindik lan asko egiteko dagoen arren, ikerketa lan honek lan munduko sexismoarekin bukatzeko eta bide batez, berdintasunerantz pittin bat hurbilduko gaituelakoan, munduan zehar feministek, ikerlariek, irakasleek, egileek... berdintasuna bizitzeko egin duten lan luzea, zaila eta ordainezina eskertuko nahiko genuke.

Izan ere ikerketa hau nahiz eta lanbide arloan bideratuta egon, ez da ikerketa zientifikorik behar beste hainbat arlotan ikusteko Haur eta Gazte literaturan

estereotipoak bultzatutako genero ezberdintasuna dagoela eta oraindik asko dugula denak hobetzeko, estereotipoak alde batera utziz eta gaur egungo haurrei aukera berri bat emanez, berdintasunerantz bideratutako etorkizun bat sortzen saiatuz eta horretarako Haur eta Gazte literatura abiapuntu bezala jarritz, umeengan duen garrantziari indarra emanez eta sexismoarekin bukatu duenaren esperantza guztia jarritz.

Gai honekin jarraituz eta garatutako ikerketa kontuan hartuz, beste hainbat ikerketa aurrera eramanez daitezkeela uste dut, hala nola; Haur eta Gazte liburuetan gizonak eta emakumeak duten jarrera (hau da, pasiboa, parte hartzailea, bigarren planoan geratzen da, etab), emakume eta gizonen presentzia Haur eta gazte literaturan eta estereotipoen gaia kontuan hartuz Haur eta gazte literaturan dauden familia ezberdinak ikertu daitezkeela uste dut (familia tradizional, bi emakumez osatutako familia, bi gizonak, etab.), egin daitezkeen beste hainbat ikerketen artean

Plazer bat izan da ikerketa hau aurrera eramatea, izan ere gauza berri asko ikasi ditut eta ez nekien oraindik sexismoa era honetan zabaldua zegoela haurrengan. Pertsonalki asko harritu naiz ikustean gizarteak asko aurreratu dela sexismoaren inguruan baina haur literaturak oraindik hobetzeko asko duela. Kontuan hartuz gaur egungo errealitateko datuek eta liburuetatik ateratako datuek gauza ezberdinak adierazten dituela, haur literaturak estereotipoak alde batera utzi behar dituela uste dut eta berdintasunaren aldeko haur literatura bat bultzatu behar duela.

Berdintasuna bultzatzeko beharrezkoa da guztien parte hartzea eta haurren aldeko apustua egitea etorkizun berritzaile bat sortzeko.

6. BIBLIOGRAFIA:

- Aguilar, C. (2017). LIJ y diversidad sexual LGTBI en la formación de maestros. En Álbumes y cuentos. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil (CLIJ) n.º. 276, abril*, 6-18.
- Alegre, B. C. (2007). Cosas de niñas: la construcción de la feminidad en la serie infantil de Celia, de Elena Fortún. *Analecta Malacitana (AnMal electrónica)*, (23), 33-59.
- Aparicio, I. (2016). La influencia de la educación literaria en la identidad de género: una propuesta educativa. *Opción: Revista de Ciencias Humanas y Sociales*, (10), 36-53.
- Arranz, F. (2015). Aproximación al dispositivo de reproducción de las identidades de género en la literatura infantil y juvenil de ficción. In Hernando A. (ed.) *Mujeres, hombres, poder. Subjetividades en conflicto*. Madrid: Traficantes de Sueños. (55-82 or.)
- Bassa eta Martin, R. (1994). *Literatura infantil catalana i educació (1939-1985)*. Palma de Mallorca: Direcció General d'Educació: Moll.
- Broverman, I. K., Vogel, S. R., Broverman, D. M., Clarkson C, F. E. & Rosenkrantz, P. S. (1972). Sex- role stereotypes. A current appraisal. *Journal of Social Issues*, 28, 59-78.
- Borda Crespo, M. I. (2002). *Literatura infantil y juvenil: Teoría y juvenil*. Granada: Grupo Editorial Universitario.
- Colomer, Teresa eta Munita, Felipe. 2013. "La experiencia lectora de los alumnos de Magisterio: nuevos desafíos para la formación docente". *Lenguaje y Textos. N.º 38*: 37-44.
- Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madril: Síntesis.
- Colomer, T. 2010. *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madril: Sintesis
- Conecta (2013), «Informe sobre mujeres y hombres en la industria cultural española (Literatura y Artes visuales)», Base de datos del Proyecto I+D+i FEM2010:16541- *Mujeres y hombres en la industria cultural española (Literatura y Artes visuales)*, Madrid (argitaratzekotan).
- John, W., & Creswell, P. C. (2000). Designing and conducting mixed methods research. SAG.
- Cromer, S. eta Turin, A. (1998). *¿Qué modelos para las niñas? Una investigación sobre los libros ilustrados*. París: Association Européenne Du Côté Des Filles.
- De Amo Sanchez-Fortun, J. M. (2003). *Literatura infantil: Claves para la formación de la competencia literaria*. Archidona Màlaga: Aljibe.
- Diaz-Aguado, M. J. 2003. "Adolescencia, sexismo y violencia de género". *Papeles Del Psicólogo. N.º 84*. (35-44 or.)

- Diaz-Aguado, M. J. 2009. "Prevenir la violencia de género desde la escuela". *Revista Estudios de Juventud*. Nº 86: 31-46.
- Fernández-Artigas, E., Etxaniz, X., & Rodríguez-Fernández, A. (2019). Imagen de la mujer en la Literatura Infantil y Juvenil vasca contemporánea. *Ocnos: Revista de estudios sobre lectura*, 18(1), 63-72.
- Etxaniz, X. (2019). El cuento y el álbum: (In)visibilidad femenina en la literatura infantil y juvenil vasca del siglo XXI. *Ondine. Revista de Literatura Comparada Infantil y Juvenil. Investigación en Educación* 3. 89 – 104
- Etxaniz Erle, X. Artigas, E. F., & Fernández, A. R. (2019). Emakumearen irudia euskal haur literatura modernoan. 1980ko hamarkadako eta gaur egungo egoera. *EGAN*, 72(1-2).
- Freixas, L. (2009), *La novela femenil y sus lectorices*, Córdoba: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Córdoba.
- Flecha García, C. eta Nuñez Gil, M. (koord.) (2001). *La educación de las mujeres: nuevas perspectivas*. Sevilla: Universidad de Sevilla
- Gavaldon, B. G. (1999). Los estereotipos como factor de socialización en el género. *Comunicar*, (12), 2
- Gómez Yebra, A. (2016). *Animación a la lectura y literatura juvenil*. Sevilla: Editorial Renacimiento.
- Heilman, M. E. (1983). Sex bias in work settings: The lack of fit model. In B. M. Staw & L. L. Cummings (Eds.), *Research in Organizational Behavior* Greenwich, CT: JAI Press. (269-298 or).
- Ibarrola, B. (*Comunicación Personal 8 de Julio, 2019*) 2020ko Martxoaren 22an berreskuratua. <https://www.begoibarrola.com/>
- Iglesias Fernández, C., & Llorente Heras, R. (2010). Evolución reciente de la segregación laboral por género en España. *Revista universitaria de Ciencias del Trabajo*, (11), 81-105.
- Johnson, B. eta Onwuegbuzie, A. (2004). Mixed methods research: A research paradigm whose time has come. *Educational Researcher*, 33(7), 14-26.
- Knell, S., eta Winer, G. A. (1979). Effects of reading content on occupational sex role stereotypes. *Journal of Vocational Behavior*, 14(1), 78-87.
- Lluch, G. (2003). *Análisis de narrativas infantiles y juveniles*. Cuenca: Universidad de Castilla La Mancha.
- Luengo, Elvira. 2013b. "Los juegos del Oulipo en los relatos de Ana Maria Machado. *Trenza de gentes, familia y género*" RAMOS y FERREIRAN aurkitua (Eds.).La familia en la Literatura Infantil y Juvenil. ANILIJ-ELOS/CIEC- Universidade do Minho. Vigo. (197-216 or)
- Macdonald, R. 1982. The tale re-told: feminist fairy tales. *Children's literature association quarterly*. Vol. 7, Nº2: 18-20.

- Machado, A.M. (2004). *Clásicos, niños y jóvenes*. Bogotá: Norma
- Mackie, M.M. (1973): Arriving at Truth by Definition: Case of Stereotype Inaccuracy. *Social Problems*, 20; 431-447.
- Mendoza, F, A., Cerrilo, P, eta Garcia, P. J. (1999). *Literatura infantil y su didáctica*. Cuenca: Universidad de Castilla-La Mancha.
- Mínguez, X. (2015). Una definición altamente problemática: la literatura infantil y juvenil y sus ámbitos de estudio. *Lenguaje y textos*, 41, 95-106.
- Mosquera, S. F. (2006). La coherencia literaria de Quevedo y la materia hagiográfica. In *Homenaje a Henri Guerreiro: la hagiografía entre historia y literatura en la España de la Edad Media y del Siglo de Oro*. Madrid: Iberoamericana. (577-596 or)
- Peña, J. V., eta Rodríguez, M. C. (2002). Identidades esquemáticas de género en la escuela: a propósito del primer aniversario de la muerte de Pierre Bourdieu. *Revista de teoría de la educación*, 14, 2002, 235-263.
- Petit, Michele. 2001. *Lecturas: del espacio íntimo al espacio público*. Mexico: Fondo de Cultura Económica.
- Rudd, D. (2005). Theorising and theories. how does children's literature exist? In P. Hunt (Ed.), *Understanding Children's literature*. London & New York: Routledge.
- Sagarzazu, I. eta Lallana, I. (2012). La influencia de los estereotipos de género tradicionales en la participación deportiva de las mujeres y su reproducción en los medios de comunicación. In Suarez, J.C., Liberia, I.H. eta Zurbano, B. (Koord.) *I Congreso Internacional de Comunicación y Género*, Libro de actas, Sevilla: Universidad de Sevilla. (2032-2047or.).
- Sanchez, C. (1995). *Literatura infantil y lenguaje literario*. Barcelona: Paidós.
- Soler, S. (2010). Más allá del fútbol: ¿la educación física en femenino?. *Aula de Innovación Educativa*, 191, 12-16.
- Turín, A. (1995). *Los cuentos siguen contando. Algunas reflexiones sobre los estereotipos*. Madrid: Horas y Horas.
- Valriu eta Llinás, C. (1994). *Història de la literatura infantil i juvenil catalana*. Barcelona: Pirene.

7.ERANSKINAK

I. LIBURUAK AZTERTZEKO EGINDAKO FITXA

	KOPURUA	EHUNEKOA
GIZONA		
EMAKUMEA		
IKASKETARIK GABEKO LANBIDEAK	EMAKUMEA	GIZONA
LANBIDE 1		
LANBIDE 2		
IKASKETADUN LANBIDEAK	EMAKUMEA	GIZONA
LANBIDE 1		
LANBIDE 2		
KIROLAK	EMAKUMEA	GIZONA
KIROLA 1		
KIROLA 2		

II. LIBURUEN ZERRENDIA

- 1- Ahotsik gabeko aita
- 2- Ainhoa oiloa
- 3- Alaba adoptatua naiz, ETA ZER?
- 4- Armiarmen ideia ona
- 5- Arrebartzaren aukera
- 6- Asmakizun polita
- 7- Baratzeko ahuntz txikia
- 8- Bizia airean
- 9- Bizia lur azpian
- 10- Derrigorrez, musurik ez
- 11- Dina igela

- 12- Dozenerdi dira, ehun dirudite
- 13- Dratxo zapatalariak
- 14- Enperadorea eta txoriak
- 15- Ez zait irakurtzea gustatzen, ETA ZER?
- 16- Grigri tartagile
- 17- Hamar hatz
- 18- Harkaitzak eta lurra
- 19- Hirukiak eta Elurretako erregina
- 20- Hodei tripaundia
- 21- Hondartza egun bat
- 22- Hondartzako kioskoa
- 23- Horazio eta jaguarra
- 24- Ilargia edan zuen astoa
- 25- Ipuin harrigarriak
- 26- Izarrak eta liwaiwai printzesa
- 27- Izaturik nago
- 28- Joanes eta bioletaren bihotza
- 29- Kamile ametsetan
- 30- Lolo bizikletan dabil
- 31- Makilakixki
- 32- Mamu maltzurak
- 33- Mapi erlea
- 34- Matxalen eta piratak
- 35- Mikela nahastuta dabil
- 36- Musikalari traketsak
- 37- Nik eserita egiten dut, ETA ZER?
- 38- Nire hamsterra
- 39- Oihan txikiko mamuak
- 40- Oilo txikia
- 41- Sherlock Holmesen kasua eta Hirukiak
- 42- Sugai dragoitxo
- 43- Suzko zapatak eta haizezko sandaliak
- 44- Tono, haria eta armiarma
- 45- Txanogorritxo

46- Tximistorratzeko kukua

47- Txokolatezko pastela

48- Ura

49- Viky dortoka eta hark arazoak gainditzeko duen modua

50- Zuhaitz baten historia